15.ZK/ABENDUA 2018 • BILBOKO IKASTETXEEN ALDIZKARIA

ELGERA

AINHOA ETA IRATI

AUTOMOZIO ZIKLOKO EMAKUMEAK

"GUTXINAKA NORMALIZATUKO DA EMAKUMEOK AUTOMOZIOAN LAN EGITEA"

4 Ainhoa eta Irati Automozio zikloko emakumeak

3 Bilboko euskalgintza
4 Elkarrizketa
6 Inkesta
7 Ikasleen taldeak
8 Berdintasuna
10 Irteera
12 Euskararen Eguna
14 Musika
15 Irteera
16 Denbora-pasak
18 Teknologia berriak

aurkibidea

ELGERA 15. ZK abendua

20 Kirola
22 Bitxikeriak
23 Bertsolaritza

8 Berdintasunaren Aldeko Ikasleak

12 Euskararen Eguna

15 Surf ikastaroa Sopelan

20 Emakumeak errugbian

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adrian BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, La Salle Bilbao HLBIP, San Inazio BHI, Ellacuria-Zurbaran BHI eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.
Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 3.813. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Eskoletako Euskara Batzordeak

Ikasturte berriarekin batera ekin zioten lanari euskara batzordeetako kideek. Orain hiru urte hasi ziren talde hauek osatzen Deustualdeko eskoletan. Helburua ikasleek euskarak ikastetxeetan duen hutsuneari aurre egitea da. Ikasleek beraiek antolatzen dituzte jarduerak boluntarioki.

Eskola bakoitzean batzordeek lan egiteko dinamika desberdina daukate, baina guztiek data jakin batzuk zehaztu dituzte egutegian. Lehena Euskaraldia izan da. Ariketak iraun duen hamaika egunetan eta aurreko hilabeteetan ere, hainbat eta hainbat jarduera egin dituzte ekimen honi ikasleen artean bultzada emateko asmoz.

Batzuek Ahobizi eta Belarriprest izateko formakuntzak antolatu dituzte, izen emateko guneak prestatu dituzte... Beste batzuek jolasak antolatu dituzte jolas-orduan, eta Euskaraldi propioa antolatu dute San Inazio institutukoek. Ibarrekolandan, adibidez, abenduaren hamalauan luntxa egin dute Euskaraldian zehar izandako esperientziak eta lekukotzak partekatzeko.

Euskaraldiarekin lan eta lan ibili dira Deustualdeko euskara batzordeetako ikasleak. Ibarrekolanda, Botikazar, San Inazio eta Deustuko Ikastolan sortu dituzte taldeak, eta hainbat ekintza antolatu dituzte euskara ikasgeletan zabaltzeko.

Urte osorako lana

Euskara batzordeon lana ez da Euskaraldira mugatuko. Izan ere, euskarak 365 egunetan behar du lekua eta bultzada. Euskaraldian ez ezik, euskararen egunean ere jarduera desberdinak antolatu dituzte batzordeok, bakoitzak bere zentroetan.

Horretaz gain, apirilean izango den Korrikaren inguruan ere zenbait ekintza prestatu nahi dituzte. Gainera, ikasturte amaieran euskara batzordeen topaketak antolatzeko asmoa dute. Era horretan batzordeetako kideek elkar ezagutu, esperientziak trukatu eta euskara haien ikastetxeetan hedatzeko ideia berriak partekatuko dituzte.

“Gutxinaka normalizatuko da emakumeok automozioan lan egitea”

Eskurtze Lanbide Heziketa

Ainhoa eta Irati Eskurtze ikastetxeko ikasleak dira. Aurreiritzi eta genero rolei aurre egin eta automozioko ikasketak egiteko erabakia hartu zuten biek.

Gaurkoan Ainhoa eta Irati ditugu protagonista, Eskurtze institutuko Automozioko ikasleak. Aurreiritzien gainetik, genero rolak hautsi eta haien amets eta jakin-nahiak lehentasun bihurtu dituzte.

Ainhoak batxilergoa bukatu ondoren Automozioko Goi Mailako zikloko iragarkia ikusi zuen kalean. Momentu horretan bertan hurrengoa etorri zitzaion burura: “Zergatik ez? Probatuko dut!”. Iratik aldiz, betidanik izan ditu motorrak gustuko, eta aspaldi zuen erabakia hartuta.

Automozioa ikastea ametsa da Iratirentzat, jakin-mina Ainhoarentzat. Biak ala biak Goi Mailako zikloko lehen mailan daude. Oraindik bide luzea egiteke dagoen arren, aurrerapauso handia eman dute bi emakume gazte hauek.

Automozioaren lanbide sektorea maskulinotzat hartzen da askotan, zer deritzozue zuek?

Ainhoa: Bai. Etiketa horietan sinesten dutenek maskulinotzat hartzen dute lanbide hau. Tailerrean zikintzen garenez, pertsona askok gure “feminitatea” galtzen dugula pentsatzen jarraitzen dute, edota pisu askoko gauzak hartu ezin ditugula ahulak garelako. Niretzat, femeninoa eta maskulinoa, gizarteak eraikitako etiketak dira eta etiketa hauekin apurtu behar dugu. Ez dut etiketa hauetan sinesten eta beraz ez dut uste maskulinoa edo femeninoak diren lanbiderik dagoenik.

Zeintzuk dira ezberdintasunak beste sektore edo zikloekin alderatuta?

Irati: Ezberdintasuna nabarmenena da, sektore honetan emakume gutxiago dagoelako. Hala ere, emakumeak diren irakasleak ere baditugu automozioan.

Generoen arteko berdintasuna nola islatzen da gelan?

Ainhoa eta Irati: Gelan giro ona daukagu. Espazioei dagokionez, gure aldagelak txikiagoak dira mutilenak baino, baina ulergarria da oraindik ez dagoelako emakume askorik.

Zein aurreiritzi apurtu behar izan duzue zuen inguruan?

Ainhoa: Nik ez dut uste etxean aurreiritzi handirik apurtu behar izan dudanik. Jakinminagatik erabaki nuen automozioa ikastea. Kalean emakumeak automozio zikloa egitera bultzatzen zituen kartel bat irakurri nuen eta amari esan nion. Berak hauxe erantzun zidan: “Noski, emakumeek ere lanbide hauek ikas ditzakete. Baina badakizu asko zikinduko zarela, ezta?”. Harritu ninduen haren erantzunak. Nik, horretarako ura eta xaboia daudela erantzun nion. Ez nuen ulertzen bere erreakzioa, margolaria izan nahi duenari ez diogu segituan esaten: “Badakizu zikinduko zarela, ezta?”.

Irati: Ikaskide batzuek oraindik ere eutsi egiten diote generoen arteko desberdintasunari, baina, ez al da berdina gertatzen gizartean? Gutxinaka gero eta gehiago normalizatuko da, zikloan neska gehiago apuntatu ahala.

Zein gomendio emango zenieke DBHko neska gazteteei beren etorkizuneko ikasketa edo lanbideari dagokionez?

Irati: Gauza ezberdinak probatu ditzatela. Automozioa aukera bat da, eta nola ez, gomendagarria.

Ainhoa: DBH edo Batxilergoa amaitutakoan galduta eta zer egin jakin gabe baldin badaude, gure gomendioa da eurek nahi dutena egin dezatela. Ez dezatela jaramonik egin aurreiritzietan oinarritutako lagunen aholkuei.

Zelan igaroko dituzu aurten gabonak

KATALIN GABIOLA

Gabonetako lehenengo astean Lekeitiora joango naiz. Han aitaren familia eta lagun asko ditut eta haiekin oso gustura egoten naiz. Bigarren astean Bilbon geratuko naiz eta amaren familiarekin egongo naiz. Gabon zaharrak ospatuko ditut haiekin. Urtero bezala, San Silvestre lasterketa egingo dut.

NOHAILA EL YOUBI

Gabonetako oporretan ia beti bidaiatzen dut 10 egunez. Beste egunetan etxean familia eta lagunekin egoten naiz. Aurtengo gabonetan Veneciara joango gara lehengusinaren etxera bederatzi egunez, eta beste egunak amamaren etxean igaroko ditugu, San Adrianen. Gabon zaharrean lehengusinak eta lagunekin petardoak botatzen ditugu balkoitik, jaietan egoten gara, afaltzen dugu...

PAULA MIGUEL

Nik beti ia familia osoarekin ospatzen ditut gabonak. Gabon gaua Brazacortan (Burgos) pasatzen dut aitaren familiarekin. Iazko oporretan hogeita lau pertsona izan ginen. Brazacortan ez dago Olentzerorik, Santa Claus dago eta urtero norbait mozorrotzen da hala. Gabon zaharra eta errege magoak, ordea, amaren familiarekin ospatzen ditut. Gabon zaharrean, beste leku askotan bezala, hamabi mahats jaten ditugu gaueko hamabietan. Nik beti lortzen dut hamabiak garaiz jatea. Gero, kartetan jolasten gara hirurak arte eta ondoren ohera. Azkenik, Errege Magoen egunaren bezperan beti joaten gara desfilea ikustera.

ANER SENIN

Gabonetan betikoa egingo dut: egun berezietan familiarekin bazkaldu edo afaldu, mahatsak jan, opariak ireki eta jolastu. Gabon gauean etxean elkartzen gara guztiok eta Eguberri egunean Olentzero etortzen da opariak uztera. Urtarrilaren 6an Errege Magoak ere etortzen dira eta opariak ekartzen dizkigute. Gabonak gustuko ditut, familiarekin egoten naizelako.

ANDREA ESTEVAEZ

Gabonetan Kolonbiara joango naiz. Hortxe dago nire familia guztia. Uste dut oso ondo pasatuko dudala, nire lehengusinekin oso pozik egoten naizelako.

ALEJANDRO GARCIA

Gabonetan oso ondo pasatzen dut. Gabon gauean aititeren etxera joaten naiz afaltzera, opariak jasotzera eta horiekin jolastera. Errege Magoen egunean amamaren etxera joaten naiz erroska handia jatera. Han ere oso ondo pasatzen dut.

IKASLEOK ZORROTZ

Deustuko Ikastola - Ikasleok Zorrotz

Ezagutzen duzue Ikasleok Zorrotz? Ez? Ba hona gatoz zuei pixka bat azaltzera.

Hainbat ikasle batu gara ikasleriaren artean dinamika berri bat sortzeko. Honen helburua gure partaidetza bultzatzea da. Non? Iruditzen zaigu gure hitza entzuna izan behar dela guri dagozkigun esparruetan. Zeinetan? Hezkuntza Erreforma da horietako bat. Euskal Herriak hezkuntza sistema propio eta burujabe bat behar du, herritik sortua eta herriarentzat behar duena izan, euskalduntzen gaituena, feminista, kolektiboa eta parte-hartzailea; era berean, kritikoa eta, noski, baztertzailea ezin dena izan.

Gure etorkizunean, Euskal Herria horrelakoa izatea nahi dugulako! Beraz, zure ikastolan, institutoan, eskolan... honako elkarterik egonez gero, animatzen zaitugu parte hartzera, guztioi dagokiguna da eta.

Berdintasunaren Aldeko Ikasleak

BAI (Berdintasunaren Aldeko Ikasleak) talde feminista Botikazar BHIko zenbait ikaslek osatutako batzordea da. Talde honetan, gure inguruan gertatzen diren egoera matxistak aztertu eta hauei irtenbideren bat ematen saiatzen gara. Aldi berean, institutuan eta institututik at izaten ditugun esperientziak partekatzen ditugu eta horrela, gure ahots guztiak batuz matxismoari eta desberdintasunari aurre egiten diegu. Honetarako hainbat ekintza antolatzen ditugu. Neska eta mutilok hartzen dugu parte BAI talde feministan.

Azken urteotan hainbat jarduera burutu ditugu zentroan. Iaz, adibidez, azaroaren 25ean kartulinazko zuhaitz erraldoi bat ipini genuen patioan eta hostoetan mezuak zintzilikatu genituen. Mezu horietan matxismorik gabeko gizartea irudikatu genuen. Ondoren manifestua irakurri genuen eta jarraian musikarekin dantzan aritu ginen. Kamisetak ere saldu genituen eta irabazitako dirua Askabide elkarteari eman genion.

Beste ekitaldi batzuk ere egin ditugu. Esaterako, institutuko sarreran kontagailu handi bat jarri dugu eraildako emakumeak zenbatzeko. Erailketa matxista bat gertatzen denean zenbakia aldatu eta emakume hauen istorioak kontatzen ditugu, gure ikaskideak kontzientziatzeko. Aste Morean, martxoaren zortziko astean, hitzaldiak eta mahai-ingu-

ruak antolatzen ditugu urtero eta azkenengo martxoaren zortzian greba ere egin genuen emakumeok.

Astero biltzen gara eta bilera horietan gure esperientzietaz gain, egingo ditugun ekitaldiez aritzen gara: antolamendua, beharrizanak…

Bai talde feministatik zuen zentroetan ere talde feminista bat eratzera animatu nahi zaituztegu, jendea elkartzean konturatzen baikara guztiok batera eta eskutik helduta gauza gehiago lor ditzakegula.

Gazteak gara, hau gure mundua da eta bertan, libre bizi nahi dugu. Defenda ditzagun gure eskubideak, borroka dezagun berdintasunaren alde eta ez ahaztu mundu hau aldatzeko, gizarte patriarkal hau aldatzeko, borroka egin behar dugula. Amaitu dezagun matxismoarekin eta gizarte patriarkal honekin, elkarturik indartsuagoak gara, batera hobeto.

Gorozikan hiru egunez

Urriaren 17,18 eta 19an San Inazio BHIko lehenengo mailako ikasleok hiru egun eman genituen Gorozikan. Elkarrekin egoteko aukera ederra izan zen; gainera, ekintza asko egin genituen.

Lehenengo eguna: 2018ko urriaren 17a. Gorozikara.

Testua: Ilargi Riobello eta Urko Lucio

Goizeko bederatzietan institutu ondoan elkartu ginen. Denok geunden urduri xamar autobusaren zain, gure familia hiru egunetan ikusi barik egongo ginelako. Gainera, ez genuen oso ondo elkar ezagutzen eta ez genekien ondo konponduko ginen elkarrekin. Hara ailegatzean, ez genekien non zegoen aterpea eta begiraleak etorri ziren. Etxeak baserri itxura zeukan, gutxienez hiru solairu, pilotaleku erraldoia eta ekintza asko egiteko oso aproposa zen. Etxe atarian Tobi zegoen gure zain, etxeko txakurra. Txikitsua zen eta batzuetan jenio txarrekoa, nork ukitzen zuen ikusten ez zuenean. Maletak utzi eta gero, monitoreek taldeak antolatu zituzten eta hobeto elkar ezagutzeko jolasak egin genituen; batzuk oso dibertigarriak, beste batzuk, ordea, ez hainbeste. Bazkalostean monitoreekin mendira joan ginen, batzuk gailurreraino eta beste batzuk aterperaino.

Ilargiri gehien gustatu zitzaiona: mendi irteera.
Urkori gehien gustatu zitzaiona: Gorozikan egotea.

Ez dago toki gehiago Ea nor erortzen den lehengo!

Lainotsu egon arren aurpegi alaiak ikusten dira

Tontorrera heldu gara! Ze poza!

Bigarren eguna: 2018ko urriaren 18a.

Mendia eta tailerrak.

Testua: Ibai Saez eta Hodei Bosque

Altxatu bezain laster (oso goiz altxatu ginen) gosaltzeko prestatu ginen. Gosaldu eta gero hortzak garbitu genituen. Mendira joan behar genuenez arropa aproposa jantzi genuen. Ibilbidea oso luzea izan zen eta baseliza batera heldu ginen. Argazkia atera genuen bertan. Bueltatu ginenean, bazkaldu eta frontoira joan ginen jolastera, hortzak garbitu ondoren, noski. Bukatzean, bi tailer egin genituen, bata pizzak (oso goxoak!) egiteko eta bestea amets harrapakariak egiteko. Azken hauek benetan originalak izan ziren. Amaitu eta gero dutxa hartu genuen, afaldu eta segituan diskotekara joan ginen. Asko dantzatu genuen eta oso ondo pasatu genuen. Azkenik, lo egiteko prestatu ginen eta ohera joan ginen.

Hodeiri gehien gustatu zitzaiona: mendira joatea.
Ibairi gehien gustatu zitzaiona: diskoteka.

Hirugarren eguna: 2018ko urriaren 19a. Jolasak eta etxera.

Monitorearen azalpenak entzuten

Testua: Josu Martinez

Zazpiak aldera esnatu eta altxatu ginen. Goiz osoa jolasean eman genuen, batzuetan begiraleekin eta beste batzuetan bakarrik. Hainbat ekintza interesgarri eta dibertigarri egin eta gero, bazkalordua heldu zen. Bazkaltzen ari ginen bitartean, jolas berezia egin genuen: binaka eserita, albokoari edo bikoteari begiak zapi batez estali genizkion eta jaten eman behar genion, elkarrenganako konfiantza sendotzeko. Zein barregarria izan zen!

Josuri gehien gustatu zitzaiona: jolasa.

Primeran pasatu genuen, hurrengoaren zain gaude!

Unamuno BHI

Euskararen Eguna 2018

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu genuen gure ikastetxe eta auzoetan. Gainera, aurten Euskaraldia izan denez, hainbat ekitaldi eta jarduera egin ditugu ariketa erraldoi honetan parte hartzeko. Ahoak bizi-bizi, belarriak prest beti!

Botikazar BHI

Ellacuria Zurbaran BHI

La Salle Bilbao

Deustuko Ikastola

DBHko 4.maila
IES Rekaldeberri BHI
Lohizune Peralta Ela

Agur, Vendetta, betiko agur

Ea zer den Vendetta niretzat galdetu didate. Duela bost urte inguru ezagutu nuen taldea eta lehen mementotik hunkitu ninduen. Harrezkeroztik hasi nintzen nire nebarekin informazioa biltzen eta horrela ezagutu nituen bere abestiak.

Vendettari esker lagun berriak egin ditut kontzertuetan, hitz eginez eta arnasa betean abestuz, badakizu.

Agobiatuta nagoenean letrak adi-adi entzuten ditut eta zoragarria da nigan duten eragina.

Lehengo egunean telebistan ikusi nuen haien agurraren albistea; lur jota utzi ninduen, apurtuta. Izan ere, lagun batzuek Vendettaren kontzertuetan baino ez dugu elkar ikusten. Albistea ezagututakoan, gure artean hitz egin genuen ea zer egingo dugun eta nola batuko garen, nola bizi izango garen Vendetta barik.

Orduan gogoratu genuen zein ondo pasatu dugun nafar hauen musikarekin eta erabaki genuen ez ditugula inoiz ahaztuko haiei esker bizi izan ditugun memento harrigarriak. Twitterren adierazi diguten moduan, denak du hasiera eta bukaera, eta haiek heldu dira, antza, hasitako bidearen amaierara.

Pena handia ematen dit agurrak. Hori gutxi balitz, ezin izango naiz haien azken kontzertura joan, etxetik oso urrun izango delako. Baina betiko geratuko zaigu urte hauetan elkarrekin bizi izandakoa eta hemendik aurrera ere disfrutatzen jarraituko dugu haien musika.

10 urteko ibilbidean zehar eginiko 5 disko eta ehunka kontzerturen ostean, munduko zorterik onena opa diet taldekideei.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko eta, agur baino, nahiago dut laster arte!

Ibarrekolanda BHI
Noelia Garcia, Isabel Gomez, Jon Bilbao, Maria Perea eta Leire Silva.

Surf ikastaroa Sopelan

2018ko urriaren 2an, Ibarrekolandako batxilergo 1. E taldeko neska-mutilok Sopelako Barinatxe hondartzara joan ginen surf egitera. Bertoko surf eskolak, La Salbaje Surf Eskola izenekoak, material egokia eta ikastaro txiki bat eman zigun.

Neoprenoak eta surf taulak hartu eta hondartzara gerturatu ginen. Beroketa ariketak egin eta prest geundenean, uretara abiatu ginen. Hotz handia egiten zuen arren, neopreno jantziari esker ura epel eta goxo zegoen.

Surfa ez da guk espero genuen bezain erraza. Hasieran, pertsona gehienak uretara erori ginen, baina saiakera batzuen ostean, guztiok lortu genuen taula gainean zutik jartzea. Hura poza!

Monitoreek laguntza handia eman ziguten eta horri esker esperientzia ezin hobea izan zen.

Irteera hau ahaztezina izango da guretzeko. Surf egiteaeatzea eta hondartza ikustea oso dibertigarria izan zen guztiontzat. Horretaz gain, aukera aparta izan zen gelakideekin harreman hobea izateko eta lagun berriak egiteko. Edozein egunetan joango gara berriro!

Munduko jaiak eta festibalak



EZKERRRETIK ESKUINERA

2. Bilbon 1973tik abuztuan ospatzen den jaia handiena.
8. Mexicon Azaroaren hasieran heriotzarekin lotuta egiten dute jaia
11. Rion- Brasilen musika dantza eta mozorroen jaia ospetsuena
12. Munduko fetibal koloretsuena Indian
13. Txinako izotz festibal handiena

GOITIK BEHERA

1. Urteko Gau motzeenean suarekin ospatzen dugun jaia Euskal Herrian
3. Irlandan berdez jasten den eguna
4. Irunean uztailan ospatzen dituzte jaiak
5. Mundu ososan ospatzen da etaTxinatarrek ez dute Urtarrilak 1 ospatzen
6. Bunolen soberan dituzten tomatekin egiten duten festa
7. Argien festibala Hinduentzat
9. Alemanian garagardoa edateko festibala
10. Tailandian urarekin urte berria ospatzeko jaia

NEGUA

K	I	K	J	T	U	R	K	E	Y	F	J	E	X	V	I	N
W	W	Y	Y	O	I	T	A	M	S	R	A	V	H	A	H	O
P	F	Y	Y	X	E	C	Z	Z	E	O	I	L	A	K	O	U
A	X	O	I	B	D	X	E	R	A	S	E	A	I	Y	T	G
L	A	Y	W	X	Y	Y	J	Y	P	T	O	T	L	Y	C	A
K	A	H	Q	A	I	E	E	C	L	E	E	L	S	M	H	T
R	A	J	I	D	D	B	N	M	S	U	L	M	T	B	O	E
Y	Y	R	X	Q	X	D	Q	K	E	E	J	E	O	K	C	K
U	K	N	Q	E	I	N	A	O	U	M	W	R	N	C	O	N
I	H	Z	B	H	U	A	C	L	S	M	S	R	E	N	L	C
Y	F	N	V	E	Y	K	H	D	A	N	B	N	S	D	A	I
A	E	G	T	A	I	Q	E	I	T	M	O	R	O	A	T	B
H	F	R	P	A	B	Y	N	T	E	E	Z	W	E	W	E	L
E	J	C	K	U	O	Y	S	L	E	D	R	E	M	L	P	J
P	N	A	H	E	K	E	Y	H	E	Y	T	E	H	A	L	O
Y	C	Q	E	G	G	L	O	V	E	S	O	A	E	Y	N	A
E	Z	X	E	H	N	E	W	Y	E	A	R	S	E	V	E	Y

NOLA ESATEN DIRA HITZ HAUEK INGELESEZ?

txingorra	elur panpina	euritakoa
izotza	turroia	gabon zaharra
esku larruak	lera (trineoa)	indioilarra
elurra	txokolate beroa	izotz zuri (antzigar)



Aurkitu 6 desberdintasunak

Tabletak eskolan, testulibururik ez

Zer pentsatuko zenukete ordenagailuekin bakarrik ikasi behar duzuela esango balizuete? Segur aski, guk bezala, tontakeria bat dela. Baina aldaketak onak dira eta esperientzia gehiago izaten laguntzen dute. Hala ere, gauza guztiek bezala, ordenagailuekin ikasteak abantailak eta desabantailak ditu.

Irati Carrillo eta Maria Rilobaren iritzia

1

Hasieran, oztopo asko aurkitzen genuen bidean eta desabantailak baino ez genituen ikusten: buruko mina, pantailengatik ikusmena nekatuta izatea, ikastea zailagoa egitea libururik gabe… Baina denbora pasa ahala, erosoagoa dela konturatu gara.

Batzuetan wifiarekin arazoak izan ditugu aldi berean pertsona asko konektatuta egoteagatik, eta beste batzuetan, eskolako webguneak arazoak izaten ditu eta ezin ditugu ariketak egin. Bestalde, ordenagailuarekin motxilak gutxiago pisatzen du, eskolako gauza guztiak leku bakarrean izan ditzakezu eta talde lanak eta aurkezpenak ordenagailuetan egitea errazagoa eta azkarragoa da.

Hala ere, aldaketa hau ez genieke ikasle guztiei gomendatuko. Ordenagailuak asko erabiltzen ez badituzu, ez duzu batere gustuko izango. Gure ustez, ordenagailuekin ikasten hastea oso aldaketa handia da, baina, azkenean, ohitura hartu eta gauza on asko irabazten dira.

Hasiera nahaste-borraste bat izan zen. Batzuen ordenagailuek ez zuten ondo funtzionatzen, beste batzuek eskola saioaren erdian jolasten ziren… Orain uste dugu hobeto aprobetxatzen ditugula eta horri esker, modu ezberdin batean ikasten dugu. Batzuetan jolas interaktiboak egiten ditugu, abestiak entzuten ditugu hizkuntzak ikasteko, bideoak ikusten ditugu… eta horrek arreta mantentzen laguntzen digu.

Liburuak asko gustatzen zaizkigu eta batzuetan beren hutsunea sentitzen dugun arren, egunak pasa ahala ordenagailuak gehiago gustatzen zaizkigula konturatzen gara. Guretzako oso esperientzia ona izan da, eta ondo erabili ezkero, gauza on asko ikas daitezke.



June Eiguren eta Naia Fernandezen iritzia

Gu June Eiguren eta Naia Fernandez gara, La Salle Bilbao Ikastetxeko ikasleak. Hamahiru urte ditugu eta ikasgelan ordenagailuekin izandako esperientzia kontatuko dizuegu.

Aldaketa honek abantailak eta desabantailak ekarri dizkigu. Abantailen artean, adibidez, lehen ez bezala, ez dugula pisu handirik eraman behar bizkarrean, soilik ordenagailuaren zama. Gainera, ezin ditugu liburuak eta lanak galdu, beti ordenagailuan ditugulako. Beste onura bat, etxean eskolako ordenagailu berberarekin ikasi dezakegula eta ez dugu etxekoa erabili behar. Azkenik, onura oso on bat, lanak garbiago geratzen direla ordenagailuz eskuz baino.

Alabaina, aldaketak baditu eragozpenak ere. Esaterako, Internet gabe ezin dugula lanik egin, ezta liburuetan sartu ere, batzuetan liburuak ez dabiltzala ondo…

2

Lehen esan dugun bezala, etxerako lanak ordenagailuz egitean Internet gabe geratu ezkero, ezin ditugu egin. Baina normalean ordenagailuak lana errazten du, liburu guztiak leku berean daudelako.

Gu ordenagailuekin gustura gaude, liburuak baino erosoagoak direlako. Batzuetan faltan sumatzen ditugu liburuak, baina ohitu gara azkenean. Hori bai, liburuekin informazioa errazago aurkitzen genuen.

Beste ikasleei gomendatuko genieke aldaketa hau, esperientzia berri bat delako eta ordenagailuekin lan egitera ohitu behar direlako. Gainera, ordenagailuak ondo erabiltzea gomendatuko genieke. Ondo pentsatu zer bilatu eta zertara jolastu eskola orduetan, harrapatu ezkero arazoak ekarriko baitizkizue.

Guk geuk esperientzia ona izan dugu ordenagailuekin, baina ikasle bakoitzak bere iritzia dauka.

Emakumeak errugbian

Errugbia kirol gutxitua da oraindik. Ez da oso kirol ezaguna, are gutxiago, emakumeen errugbia. Emily Valentine izan zen lehen errugbi jokalaria emakumezkoen artean. 1887an hasi zen Irlandan, baina mutilekin jokatzen zuen orduan.

Emakumezko errugbi taldeen sorrera urte askotako aldarrikapenen ondorioa izan da. Herrialde batzuetan, hemen baino askoz aurreratuago daude, onartuago baitago emakumeak errugbian aritzea. Gainera, ez dago hemen bezain desoreka handirik emakumezko eta gizonezkoen artean.

Gurean errugbiak oraindik ibilbide luzea badauka ere, badaude norgehiagoka honetan lehiatzen diren gazte asko, baita zenbait gazte emakume ere! Horietako bi ditugu Irene eta Sarai. 14 urterekin erabaki zuten kirolen batean entrenatzen hasi nahi zutela. Errugbiko lehenengo entrenamendura joan zirenean ez zuten zalantzarik izan: hori zen egin nahi zuten kirola.

Universitario Bilbao Rugby izeneko taldean ari dira, Errekalde auzoko El Fango kirolde-

gian. Senior kategorian hasi ziren, mutilekin batera. Horrela, asteazken eta ostiraletan neska-mutilek entrenamendua izaten zuten, astelehen eta ostegunetan neskak bakarrik entrenatzen ziren, eta ostiraletan partida mistoa izaten zuten. Larunbatetan kanpoko talderen baten kontra aritu eta, hilean behin, igandez, Bizkaiko taldearekin jokatzen zuten. Asko ikasi dute horrela, eta gero eta hobeto ari dira lehian. Joan den urtean prestatzaile fisikoarekin hasi ziren astean bi egunetan entrenatzen eta hiru egunetan aurten.

Ordutik bi urte igaro dira eta ikaragarri gustatzen zaie kirola. “Asko ikasten da besteak errespetatzen. Ez duzu bakarrik jokatzen, taldeko beste 14 pertsona ere badaude zurekin batera”. Entrenamenduetan 18-20 neska biltzen dira. Fisikoa asko lantzen da saioetan. “Gogorra izaten da batzuetan, baina merezi du”.

Eurak sartu zirenean sortu zen emakumeen taldea. Iaz Euskal Errugbi Ligan jokatzen hasi ziren, eta lehenengo aldia izan arren, ez ziren batere gaizki aritu. “Aurtengo helburua lehenengo postuetan geratzea da”. 16 eta 28 urte bitarteko emakumeekin lehiatzen dira. Irene eta Sarai gazteenak dira haien artean, 16 urte besterik ez dute eta. Helburu argi bat daukate biek: Espainia mailan jokatzea. “Ametsa litzateke guretzat”.

Partidak hiru denboratan zatitzen dira: 40 minutuko bi aldi izaten dituzte, eta hirugarren zatian talde biak elkarrekin bazkaltzera joaten dira. “Hirugarren zatia besteak bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da kirol honetan”.

Mutilak oso pozik daude emakumezkoen taldearekin. Gehienetan beren partidetara hurbiltzen dira neskak animatzera, eta ezagunak ere eramaten dituzte taldean sartzen anima daitezen. Interesa dutenei erakutsi egiten diete baloia nola pasatzen den, ostikada nola ematen zaion…

Ireneren esperientzia positiboa izan da zentzu guztietan. Kirol honenganako duen zaletasuna ez da berea bakarrik, familiak hasieratik animatu du errugbian aritzera. Lagunek, ordea, ezberdin hartu zuten hasieran. Asko aho zabalik geratu ziren errugbian hasiko zela esan zienean. Baina laster esan zioten aurrera egin behar zuela bere asmoarekin, gustuko bazuen egin behar zuela. Bere hurbilekoenen babesak asko lagundu dio Ireneri ibilbide honetan.

Sarairen senide eta lagunek ere antzeratsu bizi izan zuten errugbian arituko zelako berria. “Nire amama kezkatu egiten da, baina animatu egiten nau”. Gainera, Sarairen osaba irlandarra da eta jakina da hangoak oso errugbi-zaleak direla.

Anekdotak ere badituzte emakume bi hauek, gehienetan borroka-kirola delako gertatzen direnak. Askotan ubeldurak izaten dituzte gorputzean, batzuetan aurpegian ere, eta zenbaitek kezkati begiratzen die beltzune hori nork egin dion edo nola egin dioten pentsatzen duten bitartean. Beraiek naturaltasun osoz erantzuten dute errugbiaren albo ondorioak direla.

Agian, hemendik gutxira, hedatuago egongo da errugbia, eta, akaso, emakumeak kirol honetan ikustea ere arruntago izango da guztiontzat.

Euskaraldia

Kuadrila ederra elkartu ginen patioan Euskaraldiarekin bat egiteko, nahiz eta batzuk falta izan, despistaturik, edo azterketak egiten ari zirelako. Orain lan egiteko ordua heldu da. Ea gure hizkuntza ohiturak aldatzen ditugun eta euskaraz gehiago egiten dugun! Animo guztioi!!!

Manifestazioa

Azaroaren 14an ikasleen greba orokorra egon zen “Kanpora matxismoa gure ikasgeletatik! “Heziketa sexual inklusiboa hezkuntza sisteman” aldarrikatuz. Argazkian: bagoaz kalera emakumeen eta LGTB taldekoen eskubideen eta pentsionisten alde borrokatzera!!

Birziklapena

Hor birziklatzeko bi edukiontzi ditugu: plastikorako eta papererako. Horia goraino beterik, jendeak egin behar duena egin duelako. Bestea, urdina, hutsik, baina ez paperik birziklatzen ez delako, baizik eta norbaitek edukiontzi handira eraman duelako eta hauxe ere bada egin beharrezko lana!!!. Beraz, txalogarriak bi ekintzak!!!!

Seinalea

Kontuz *Kontuz* seinalearekin. Kontuz ibili behar, estropezu egin dezakezu eta! Denbora luzez dago hor, lurrean botata, luze-luze, arriskutsu, Beraz, kontuz ibili!!!

Geografia mintegia

Zeozer arraro ikusten duzu atean dagoen kartel horretan? Ortografia akatsen bat izan daiteke? Hitzen bat txarto egon daiteke? Begiratu ondo ea aurkitzen duzun!

Doinua: *Pello Josepe*

Hamaika egun irauten ditu
Euskaraldia da himnoa
Belarriprest ta Ahobiziak
hori izango da planoa
Erratuta dau esaten duenak
dela hizkuntza nanoa
bakoitzak bere alea jarriz
lortuko dugu muinoa

Ainhoa Herran

Doinua: *Badira hiru aste*

Elkarrekin guk ekarrikogu
gure euskara herrira
11 egun denok batera
guk eginez kalejira
gure indarrak loturik eta
zuek guztiek begira
gure hizkuntza aberasteko
zatoz zu Euskaraldira

Gotzon Madariaga eta
Libe Diaz de Argandoña



2018ko Euskararen Eguneko pegatina lehiaketaren irabazlea:

Leire Martinez (Ibarrekolanda BHI - Batx. 2)

Zorionak Leire!